

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Prozesu honetan onartu eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda: iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesua, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozkoa, musika irakaslea (biolontxelo) plazari dagokiona

Alkatearen 2024ko maiatzaren 7an 58 dekretuaren bidez, honako erabaki hau hartu da:

Deialdiaren oinarriak 2022ko abenduaren 26ko ALHAOn (148. zk.) argitaratu dira, eta hutsen zuzenketa 2023ko martxoaren 15eko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (31. zk.) eta deialdiaren laburpena 2023ko maiatzaren 11ko BOEn (112. zk.).

Eskabideak aurkezteko hogeitun egun balioduneko epea amaituta, eta prozesuan parte hartzeko eskaerarik aurkeztu ez denez, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Hutsik uztea Aguraingo Udalean musika irakasle (biolontxelo) izateko plaza bat (iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzea) hautatzeko prozesua, ez baita hautagairik aurkeztu.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn, erakunde honen iragarki-oholean eta udalaren web-orrian argitaratzeko agintzea:

url: <https://agurain.eus/eu/udala/iragarki-taula>.

Hirugarrena. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bidearen, eta beronen aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio alkate-lehendakariari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa administrazioarekiko auzien jurisdikzioan eskuduna den organoan, bi hilabeteko epean, aipatutako egun beretik aurrera. Ez dago bi errekurtsoak batera jartzetik. Aurrekoetz gain, interesdunak egoki iritzitako beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango du.

Agurain, 2024ko maiatzaren 7a

Alkatea

RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR